



LARRAULGO UDALA
(GIPIUZKOA)



ESKOLA ZERBITZUA LARRAULEN

Gaur egunean, zortzi urte arteko zerbitzua dago Larraulen eta **datorren kurtsoan 10 urte artekoa izango da, Pello Errota ikastexearen barruan.** Hauxe da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, martxoan Larraulen bertan izandako bileran, Larraultz udalari eta Guraso Elkarteari emandako berria.

Bi urte barru, berriz, inguruko herri guztiek bezala, Larraulek ere 12 urte arteko zerbitzua izateko aukera eskaini die Jaurlaritzak Udalari eta gurasoei, legeak markatzen dituen matrikulazio kopuruak betetzen diren neurrian.

Beraz, Larraulek, 35 urteren ondoren, berriz ere eskura du lehen hezkuntzako eskola zerbitzu osoa herrian, Larraultz Udalak, gurasoek, herritarrek eta irakasleek egindako lanaren ondorioz. Orain, herriarentzat hain garrantzitsua den **zerbitzu hau erabiltzea eta denon artean indartzea tokatzen zaigu.**

Agur térdi.

Larraulen, 2013ko apirilaren 11an